

UDALAREN OSOKO BILKURA

2017ko apirilaren 27ko ohiko bilkura

BERTARATUAK

ALKATE UDALBURUA

M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
IKER AGIRRE BARTZENA
IDOIA BLASCO CUEVA
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
XABIER LOSANTOS OMAR (1)

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
BEGOÑA JUARISTI LINACERO
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN

EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ
ARITZ TELLITU ZABALA

Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Alderdi Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

EZ DA BERTARATU:

Euzko Abertzaleak

DIONI ANDRES BLANCO

EUSKARA ITZULTZAILEA

GARAZI URKIOLA AND.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

IDAZKARI NAGUSIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

(1) *Se ausentó a las 20:15 en el transcurso de los Ruegos y Preguntas.*

Leioako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hogeitazazpiko arratsaldeko zazpiak eta bost direnean, Elizate honetako Udalbatza ohiko bilkura egiteko bildu da, Alkate Udaltzburu M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ andrea izan da bileraren burua eta Idazkari Nagusi Chiara Camarón Pacheco andreak lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek hartu dute parte, eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen gehiengoa dira. Alkate Udaltzburu andreak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoa eta aipatutako Legearen 21.1.c artikuluan ezarritakoa aintzat harturik, udalbatzak 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuran onartutako eta urte horretako irailaren 23an 182 zk. BAOan argitaratutako Leioako Udaltzburu Organikoaren 22 eta hurrengo artikuluekin ados.

Adierazitako orduan, lehenengo deialdian, Presidentetzak bilkura irekitzat eman zuen, eta jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zioten.

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- HONAKO AKTA HONEN ONARPENA:

- 2017.03.30eko ohiko osoko bilkura.

Aipatutako bilkuraren akta onartzeke zegoela adierazi zen eta hura Osoko Bilkurak onartzeko ezarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Osoko Bilkurak, aho batez, 2017ko martxoaren 30ean egin zen ohiko bilkuraren akta onartu zuen, haren gaineko aipamenik gabe.

2.- INDEPENDENTZIA KALEKO 25 ZENBAKIAREN GAINEKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Osoko Bilkuraren onarpenera ezarri zen Hirigintza eta Etxebizitza; Obrak eta Zerbitzuak, Mugikortasuna eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 16. zk. irizpen proposamena, 2017ko apirilaren 20koa. Espedientean dagokion ziurtagiria jasota dago.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Leioako Udaleko Osoko Bilkurak, hamabi aldeko botoren bidez, Eusko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzienak eta Euskal Sozialisten taldeko hiru zinegotzienak, eta bederatzi abstentzioekin, lau Esnatu Leioa taldeko lau zinegotzienak, hiru EH-Bilduko hiru zinegotzienak eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotzienak, ordenamendu juridikoak eta zehatz-mehatz, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen Legearen 22.2 c) artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau **ERABAKITZEN DU:**

El Ayuntamiento-Pleno de Leioa, con los doce votos a favor emitidos por los nueve Concejales de Euzko Abertzaleak y los tres de Socialistas Vascos y habiéndose registrado nueve abstenciones de los cuatro Concejales de Esnatu Leioa, los tres de EH-Bildu Leioa y los dos del Grupo Popular de Leioa, en uso de las atribuciones establecidas por el ordenamiento jurídico y en concreto, la establecida por el art. 22.2 c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, **ACUERDA:**

Hirigintza eta Udal Harremanen Sailaren irailaren 15ko 1437/2006 Foru Aginduaren bidez Leioako hiri antolamendurako plan orokorraren aldarazpenaren testu arau-emailea, 28a Ondiz finkatua, 28b Ondiz historikoa eta 37 Ondiz hutsa hiri lurzorua aldeak sortzeko, BHI-106/2005-P03-A espedientea, behin betiko onartu zela (BAO 20 zk, 2006ko azaroaren 17an) kontuan hartuta.

Considerando que mediante Orden Foral del Departamento de Relaciones Municipales y Urbanismo 1437/2006, de 15 de septiembre, se procedió a la aprobación definitiva de la de la modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Leioa para la creación de las áreas de suelo urbano 28a, Ondiz consolidado, 28b, Ondiz histórico, y 37, Ondiz vacante, expediente BHI-106/2006-P03 (BOB nº 220 de 17 de noviembre de 2006).

Udalaren osoko bilkurak 2009-12-29ko batzarrean hartu zuen 4. erabakiaren bitartez, behin betiko onetsi zela HAPOn 37. arloari (Ondiz hutsik) buruzko zati bateko aldaketa (BAO 12 zk, 2010eko urtarrilaren 20an) kontuan hartuta.

Considerando que mediante acuerdo plenario nº 4 adoptado en la sesión celebrada el 29-12-2009, se procedió a la aprobación definitiva de la Modificación Puntual del P.G.O.U. referente al Area 37-Ondiz Vacante (BOB nº 12 de 20 de enero de 2010).

2016ko ekainaren 10ean eta 3.502 erregistro

Considerando que con fecha de 10 de junio de

zenbakiarekin Independentzia kaleko 25 zk duen etxeari buruzko Xehetasun Azterketa proposamen bat aurkeztu zela kontuan hartuta.

2017ko urtarrilaren 09ko 28 zk duen Alkatezaren Dekretuaren bidez Xehetasun Azterketari hasierako onespena ematea erabaki zela kontuan hartuta, 20 eguneko jendaurreko epea zabalduz alegazioak aurkeztu ahal izateko. Jendaurreko epea zabaldu baino lehen testu bateratu bat aurkeztu behar zen 2016ko azaroaren 23an aipatzen diren zuzenketekin bat etorriz.

Behin 2017ko martxoaren 03an eta 2.388 erregistro zenbakiarekin Independentzia kaleko 25 zk duen etxeari buruzko Xehetasun Azterketa proposamen berri bat aurkeztuta jendaurreko epeari hasiera ematen zitzaiola kontuan hartuta.

Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez dela kontuan hartuta.

Udal Arkitektoak 2017ko apirilaren 21ean gaiaren inguruko txostena kontuan hartuta..

2017 apirilaren 20an ospatutako Hirigintza eta Etxebizitza, Obrak eta Zerbitzuak, Mugikortasuna eta Ingurumeneko Informazio Batzordean hartutako baiezkotza irizpidea kontuan hartuta.

LEHENIK: Independentzia kaleko 25. zk. duen etxeari buruzko Xehetasun Azterketa behin betiko onestea.

BIGARRENIK: Xehetasun Azterketaren behin betiko testuaren ale bat Erregistroan eta Udal honetako Hirigintza Artxibategian idatzi eta jagon.

HIRUGARRENIK: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko onspenari buruzko ebazpena osoa argitaratzea.

LAUGARRENIK: Lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarietan behin betiko onspenaren akordio hau argitaratzea.

2016 y registro de entrada 3.502 se presentó propuesta de Estudio de Detalle para la casa del nº 25 Independentzia kalea.

Considerando que mediante Decreto de Alcaldía nº 28 de 09 de enero de 2017 se acordó aprobar inicialmente el Estudio de Detalle y la apertura de un plazo de información al público durante un plazo de 20 días para que se pudieran presentar alegaciones, debiéndose presentar previamente un texto refundido que recogiera las correcciones señaladas en el informe técnico de 23 de noviembre de 2016.

Considerando que una vez que con fecha de 03 de marzo de 2017 y registro de entrada 2.388 se presenta nueva versión de la propuesta de Estudio de Detalle para la casa del nº 25 Independentzia kalea se da inicio al período de información pública.

Considerando que durante el período de información público no se ha presentado alegación alguna.

Considerando el contenido del informe emitido por el Arquitecto Municipal con fecha de 21 de abril de 2017

Considerando el contenido del dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de urbanismo y vivienda, obras y servicios, movilidad y medio ambiente celebrada el 20 de abril de 2017.

PRIMERO: Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle para la casa del nº 25 Independentzia kalea.

SEGUNDO: Anotar y custodiar un ejemplar completo del texto definitivo del Estudio de Detalle en el Registro de Planeamiento municipal.

TERCERO: Publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva.

CUARTO: Publicar en los diarios de mayor difusión en el territorio histórico el presente acuerdo de aprobación definitiva.

3.- ZUATZU ETA GAZTELUBIDE TXOKOEN ARAUDIA:

Osoko Bilkuraren onarpena ezarri zen Kultura, Kirol, Gazteria eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordearen 29. zk. irizpen proposamena, 2017ko apirilaren 20koa. Espedientean dagokion ziurtagiria jasota dago.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Aintzat hartu da Zuatzu Txokoa izeneko San Bartolome Kulturagunean kokatutako instalazio sozio-kultural eta gastronomikoaren erabilera arautzen duen araudia, Gaztelubideko instalazioan aplikatzea ere erabaki zena.

Aintzat hartu da San Bartolome eta Pinueta auzoetan udal titulartasuneko instalazio sozio-kultural eta gastronomikoen erabileraren araudi arautzailearen proposamena, Kultura, Kirol, Gazteria eta Hizkuntza Politika Batzordean emandako irizpenarekin ados, zeinaren testua honekin batera atxikitzen den.

Aintzat hartu da espedientean jasota dagoen prozeduraren gaineko txosena.

Aintzat hartu da aipatutako araudiaren testua, 2017ko apirilaren 20ko saioan Kultura, Kirol, Gazteria eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordean emandako idazkuntzaren araberakoa, aldaketak barne hartuta.

Leioako Udaleko Osoko Bilkurak, hamalau aldeko botorengatik, Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzienak, Euska Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak, eta Leioako Alderdi Popularreko bi zinegotzienak, zazpi abstentziorekin, Esmatu Leioa taldeko lau zinegotzienak eta EH-Bildu Leioa bi zinegotzienak, ordenamendu juridikoak eta, zehatz-mehatz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 77/1985 Legearen 22.2 c) artikulua ezartzen dituen ahalmenak erabiliz, honako hau **ERABAKITZEN DU**:

Lehenik.- Behin-behinean onartzea Leioako udalerriko San Bartolome eta Pinueta auzoetako udal titulartasuneko instalazio sozio-kultural eta gastronomikoen erabileraren araudi arautzailea.

Bigarrenik.- Informazio publikorako eta interesdunei entzunaldia emateko hogeitamar eguneko gutxieneko epea irekitzea erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, aipatutako 77/1985 Legearen 49. Zk. artikuluan ezarritakoaren arabera. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordurarte behin-behinekoa izan den erabakia behin betikoa izatera igaroko da eta aldaketa hau ordenantzaren testu osoarekin batera Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, beraiei buruzko ebazpenak eta, hala badagokio, horien behin-betikoa onarpena eta argitaratzea, une horretan eraginik gabe geldituko delarik aurreko araudi aplikagarria.

SAN BARTOLOME ETA PINUETA AUZOETAN UDAL TITULARTASUNeko INSTALAZIO SOZIO-KULTURAL ETA GASTRONOMIKOEN ERABILERAREN ARAUDI ARAUTZAILEA

1. ARTIKULUA. HITZAUURREA.

Leioako Udalak udal titulartasuna duten instalazio sozio-kultural eta gastronomikoak ditu San Bartolome eta Pinueta auzoetan (hemendik aurrera "txokoak").

Txoko hauek Leioako udaleko auzotar, bizilagun eta erroldatuta dauden guztien eskura dauden arren, hainbat berezitasun dituzte haien kokapen, sorkuntza, jatorri eta abarren arabera, eta berezitasun horiek aintzat hartzen dira araudi arautzaile honetan.

San Bartolomeko kultura aretoko eraikina berriztatu ondoren, bertan Txoko moduan erabiltzeko eremu bat antolatu da, Txoko Zuatzu izeneko. Aisialdirako eremu bihurtu da udalean erroldatutakoek hartaz gozatu ahal izan dezaten.

Best alde batetik, berriki berriztatu den Gaztelubideko udal bulegoa dagoen eraikinean badago beste topagune bat Leioako auzoetako bizilagunentzat. Horregatik, eskatzaileek txoko moduan erabili ahalko dute, araudi arautzaile honek ematen dizkien mugen barruan.

Halaber, Leioako Udalak herriko elkarteen lana eta udalaren ehun sozialari ematen dioten garrantzia azpimarratu nahi ditu, batez ere auzoetan kokatuta dauden elkarteak. Horregatik, Leioako Udalak elkarte hauei eskatzaile izateko eskubidea ere aitortzen die araudi honetan definitzen diren mugekin.

2. ARTIKULUA. XEDEA.

Leioako Udalak, autoantolatze ahalmenak erabiliz, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4.1. a) artikulua onartuak, eta baita Udalarai aitortzen zaizkion eskumenak ere, kultura zerbitzua ezartzen du horretarako antolatu diren lokalak zentro sozio-kultural eta gastronomiko moduan erabiltzeko jauregiko Zaindariaren etxean, hemendik aurrera "txoko" eta San Bartolomeko kultur aretoan.

Ordenantza honen xedea txoko hauen aldi baterako erabileraren baimena arautzea da, jarduketa zehatz baterako edo batzuetarako, eta baita baimena jasotzen dutenek egingo duten erabilera ere.

Udalaren lokalak erabili nahi dituztenek Udalaren baimena lortu behar dute aldez aurretik.

3. ARTIKULUA. ESKATZAILEAK.

1. *Eskatzailea da pertsona talde baten (hemendik Aurrera erabiltzaileak) izenean txokoa eskatzen duen pertsona fisikoa. Erabiltzaileak izango dira onura aterako dutenak eskatzaileak egindako eskaeraren arabera.*
2. *Eskatzailea nahitaez zerbitzuaz gozatuko duen erabiltzaileetako bat izan beharko da.*
3. *Hauek izan daitezke eskatzaileak:*
 - a. *Leioan erroldatutako pertsonak eta bertako bizilagunak, adinez nagusiak.*
 - b. *Irabazi asmorik gabeko elkarteak, Leioako udalerrian egoitza soziala dutenak edo bere jardueretako batzuk nabarmenki Leioan garatzen dituztenak eta Leioako Udalaren aldetik horri buruzko aitorpena dutenak edo elkarteen udal erregistroan inskribatuta daudenak.*

4. *Araudi honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek ezin izango dute eskaerarik egin txokoaren erabilera baimentzeko eskaera egiteko ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituzten pertsonari edo entitateei, edo finkatutako preferentziak betetzean iruzurra egiteko asmoa dutenek.*

4. ARTIKULUA. ESKATZAILEEN MUGAK

1. *Eskatzaile guztiak 18 urte beteta izan behar dute eskaera egiteko orduan.*
2. *Eskatzaile guztiak Udalaren lehenespen-eskubidearen menpekoak izango dira, eta antolakuntza arrazoiren batengatik edo beste edozeinengatik, erabiltzeko edozein eskaera baliogabetu dezake. Halakorik gertatuz gero, Udalak erabiltzeko eskubide berezia eman ahal izango du bere irizpidearen arabera.*
3. *3.1.2. artikuluan definitutako elkarteak beren legezko ordezkariak ordezkaturako dituzte edo funtzio honetarako eskuordetutakoak.*
4. *Eskatzaile guztiak eta eskaerari dagokion taldea osatzen duten erabiltzaileek bakarrik eskatu ahal izango dute txoko bat eguneko, finkatutako ordutegian, zatiketarik ezin izango da inoiz egin (orduko zatikiak, egun erdia, etab.)*
5. *Eskatzaile guztiak eta erabiltzaileak baita ere, araudi honetan ezartzen diren mugak bete behar dituzte eta araudiaren menpekoak dira eskaera egiten den unetik.*
6. *Ematen diren baimenek izaera pertsonala dute eta besterendu ezinak dira. Horregatik, inoiz ezin dira transmititu eskatzaile eta erabiltzaileen artean, eta ezinbestez eskaera berri bat izapidetu beharko da edo eskatzaileak bertara joatea ezinezkoa izan duela egiaztatu beharko da.*
7. *Eskatzaileak izaera hori galduko du 12 artikuluan zehazten diren kasuetako batean eroriko balitz.*
8. *Eskatzaileak hilean behin erabili ahal izango du txokoa, eta txokoa erabiltzeko bi eskaera egin daitezke hilean.*

5. ARTIKULUA. ESKAERAK

1. *Eskaera egiteko, eskatzaileak email bat bidali beharko du helbide honetara sac01@leioa.net edo sac02@leioa.net edo Udaletxeko Erregistrora bertaratu zabalik dagoen ordutegian eta eskabide orria bete txokoa erabili nahi denaren aurreko hilabeteko lehen hamabostaldian gutxienez.*
2. *Epea igarota ere egin daiteke eskaera, baina beste erretserbaren bat badago eta Udalak behar diren zerbitzu guztiak kontratatu ahal izatearen baldintzapean geldituko da.*
3. *Eskabide orrian honako datu hauek bete beharko dira:*
 - 1.1 *Izena eta bi abizenak.*
 - 1.2 *NAN.*
 - 1.3 *Helbidea.*
 - 1.4 *Harremanetarako telefonoa.*

- 1.5 *Eskatutako txokoa.*
- 1.6 *Jaiotze data.*
- 1.7 *Ospakizunaren data.*
- 1.8 *Erabiltzaile kopurua.*
- 1.9 *Eskaeraren arrazoia.*
- 1.10 *Izena eta ordezkartzaren IKF elkartean kasuan.*

Izapideen eskuliburuan jasotako inprimaki ereduarekin ados.

6. ARTIKULUA. BAIMENAK EMATEA, ERRETSERBA BERRESTEA ETA BALIOGABETZEAK.

- 1. *Behin eskaera egin ondoren eta hutsunerik edo okerrik egonez gero, beroriek zuzendutakoan, Udalak Alkateza dekretu bidez txokoa erabiltzeko eskubidea emango du edo uko egingo dio. Hilabete batean ebazpena eman ezean, administrazioare isiltasunez eskaera ez dela onartu ulertuko da.*
- 2. *Txokoa erabiltzeko eskubidearen emakidaren inguruan erabakitzeke, Udalak 3 eta 4 artikuluetan ezarritako irizpideak eta lehentasunak aintzat hartuko ditu.*
- 3. *Egun berberarako eskaera desberdinak egonez gero, zozketa bat egingo da txokoa erabili nahi den hilabetearen aurreko hilabetearen 20an (edo hurrengo egun baliodunean) eta interesdunei email bidez data eta ordu zehatza jakinaraziko zaizkie.*
- 4. *Udalak, arrazoituta, eskaerari uko egin ahal izango dio edo haren edukia murriztu.*
- 5. *Halaber, baimenak baliogabetu ahal izango dira, kalte-ordainik jasotzeko eskubide barik, behar den moduan justifikatutako eta bat-batean gertatutako arrazoiek edo herri interesak horrela eskatzen dutenean.*
- 6. *Txokorako baimenduta dagoen edukiera baino erabiltzaile gehiago agertzen badira eskaeran edo 12 artikuluan aurreikusitako kasuren batengatik zigortuta egongo balira, baimenari uko egiteko arrazoia izango da.*

7. ARTIKULUA. EDUKIERA.

- 1. *Erabiltzaile kopurua, eskatzailea barne, ezin izango da txokorako ezarritako edukiera baino handiagoa izan:*
- 2. *Txoko Zuatzu: 24 norbanako*
- 3. *Txoko Gaztelubide: 25 norbanako*

8. ARTIKULUA. ERABILERA ORDUTEGIA.

Bakarrik eskaera bat eguneko baimendu ahal izango da.

Izaera orokorrean ordutegi hau ezartzen da Zuatzu txokoa erabiltzeko: 10:30etik aurrera. Gaztelubideko txokorako, aldiz, 11:30etatik aurrera izango da.

Asteleheneretik ostegunera itxiera ordua hurrengo egunaren 0:30ean izango da.

Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan itxiera ordua hurrengo egunaren 1:30era.

Ordutegi honen barruan, erabiltzaileek nahiago duten ordutegian erabili ahal izango dituzte lokalak (bazkaria, merienda, afaria).

22:00etatik aurrera, txokoaren barruan dagoenak diskrezioz jokatu beharko du, eragozpenak sortu eta kanpotik entzun daitezkeen zaratak, ahots ozenez egindako elkarrizketak, abestiak eta abar saihestuz.

Lokaletik irtetzean, 22:00etatik aurrera, ezin izango da atearen ondoan edo inguruetan gelditu, auzokoentzat traba izan daitezkeen oihuak eta zalapartak saihestu behar dira.

9. ARTIKULUA. TASAK.

- 1. Tasak gaia arautzen duen zerga ordenantzaren arabekoak izango dira.*
- 2. Tasen ordainketa honako arau hauen arabera egingo da:*

a) Instalazioen eskatzaileak izango du ordainketa egiteko betebeharra.

b) Ordainketa behin baimena eman ondoren egin beharko da, beti txokoaren erabilera baino lehen.

- 3. Itzulerako eskubidea duten erretserben ezeztapenak bakarrik onartuko dira behar den moduan justifikatzen badira.*

10. ARTIKULUA. ESKATZAILE ETA ERABILTZAILEENTZAKO DEBEKUAK.

Bai eskatzaileak, bai gainerako erabiltzaileek, honako debeku hauek errespetatu beharko dituzte:

- 1. Mahaiak, aulkiak, edo lokalaren barruan dagoen edozein objektu ateratzea.*
- 2. Kanpoaldean su egitea; adibidez, parrilak, barbakoak edo bero iturria den edozein objektu erabiltzea.*
- 3. Lokala eskaeran azaldutakoaren helburu desberdin baterako erabiltzea.*
- 4. Behin lokala erabili ondoren, janaria, edariak, zaramak edo lokalean alde zurretik ez zegoen edozein material bertan uztea.*
- 5. Musika aparailuak edo antzekoak kanpoaldean instalatzea, Udalaren berariazko baimenik gabe.*
- 6. Barrualdean musika aparailuak edo antzekoak piztea 65 dezibelio baino gehiagotan.*
- 7. Erabiltzaileak lokalaren erabilera hirugarren pertsona bati ematea.*
- 8. Titulartasun publikoko lokala denez gero eta tabakoaren kontsumoa arautzen duen legeria betetze aldera, erabat debekatuta dago txokoan erretzea. Txokoaren barruan erabat debekatuta dago apustu-jokoak diruz egitea.*

11. ARTIKULUA. ESKATZAILEAREN BETEBEHARRAK.

Eskaera sinatu zuen pertsonak edo beharrezkoa izanez gero, berorrek ordezkatzeko duen Erakundeak, txokoa erabiltzen duenean, bertan garatzen den jardueraren gaineko ardura hartu behar du eta Barne Araudia betetzeko konpromisoa hartu.

Txokoaren erabiltzaileek beronen kontserbazio-egoera ezin hobea eta garbitasuna zaindu beharko dituzte, istiluak gertatzea edo orokorrean, lokala edo ekipamendua hondatu ditzaketan ekintzak saihestuz,

Halaber, udal arduradunen edo kargudunen jarraibideak errespetatu beharko dituzte, espazioaz eta eskura dauden materialez gozatuz hauen helburuekin bat etorritik, eta ondasunei zein pertsoneri egin liezazkieketen kalteengatik erantzun behar dute.

Bai eskatzaileak, bai gainerako erabiltzaileak dagozkien honako obligazio hauek bete beharko dituzte:

- 1. Eskabide orria bete, tasak ordaindu eta debekuak eta ordutegia errespetatu, bai eta Udalaren aldetik onuradunari helarazten zaion edozein argibide ere (erantzukizun zibileko aseguruaren eskaera ere bai).*
- 2. Giltzak itzultzea.*
- 3. Egindako edozein kalte deklaratzeko iradokizun eta kalteetarako orria erabiliz.*
- 4. Higiezinaren osotasuna zaintzea edo berau osatzen duten elementuena, edozein direlarik; halaber, gertatutako gorabeherak jakinarazteko obligazioa ere.*
- 5. Behin erabili ondoren, argiak amatatu, gasaren giltza itxi, aparailu elektrikoak deskonektatu (beharrik ez dutenak izan ezik), ateak eta leihoak itxita gelditzen direla egiaztatzea, erabilitakoa batu eta txokoaren erabilera sortutako zarama atera birziklapenaren arabera banandua.*
- 6. Ordenantza hau bete eta udalak erabiltzaileari helarazten dion edozein argibide, ahoz edo idatiz, ere.*
- 7. Txokoan egiteko eskatu den jardueraren kontrola erraztea udaleko pertsonalari eta udalbatzari.*
- 8. Txokoan ematen diren zerbitzuen eta materialen ordena eta garbitasuna zaindu, bai eta ematen diren argibideak ere.*

12. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 139 artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren arabera, udal txokoen erabilera dela eta, arau-hauste motak ezartzen dira eta obligazioak, debekuak edo araudi honetan jasotzen diren mugak ez betetzeagatik zigorrak ezartzea.

Txokoa erabiltzen dutenek udal agintarien edo arduradunen argibideak errespetatu beharko dituzte, eremuaz eta eskuragarri dauden materialez gozatu berezko duten helburuarekin bat etorritik, eta ondasunei zein pertsoneri gerta lekizkien kalteengatik erantzun beharko dute.

Udalaren pertsonalak behar diren ikuskapenak egingo ditu erabiltzaileek araudi hau betetzen dutela egiaztatzeko, administrazioko arau-hausteak izan daitezkeen jokabideak eta omisioak ezartzeko helburuarekin.

- 1. Araudi honetako arauen urraketak honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.*

1.1 Arau-hauste oso larriak hauek dira:

- 1.1.1 Txokoa erabiltzea baimena eduki gabe eta tasaren zenbatekoak edo ezarritako fidantza ordaindu gabe.*
- 1.1.2 Txokoaren erabilera galaraztea dagokion baimena duen pertsona edo taldeari.*
- 1.1.3 Adingabeei txokora sartzea erraztea beren guraso edo tutoren asistentzia edo presentzia barik.*

- 1.1.4 *Kalteak borondatez sortzea, bai instalazioetan eta berau erabiltzeko material eskuragarrietan, bai eraikinean, txokoaren erabilera jarraia eragozten dutenak.*
- 1.1.5 *Ixteko ordutegia ordubetez baino gehiago gainditzea jarritako mugarekiko.*
- 1.1.6 *Erabilera lagatzea hirugarren pertsona bati, baimena duenaren desberdina.*
- 1.1.7 *Zehapen-espeditentea ireki aurreko urtean zigortua izan izana bi arau-hauste arinengatik edo arau-hauste larri batengatik.*
- 1.1.8 *Instalazioak, zerbitzuak eta txokoaren erabiltzaileentzat eskuragarri jartzen diren materialak gaizki erabiltzea, beroriei kalteak eginez edo justifikatu gabeko arriskuak sortuz.*
- 1.1.9 *Ateak eta leihoak ez ixtea, ezta gasaren giltzak eta alarmaren konexioa ere.*
- 1.1.10 *Ez errespetatu "tabakorik gabeko eremua".*

1.2 Arau-hauste larriak hauek dira:

- 1.2.1 *Eskabide orrian jasotako daturen batean gezurra esatea baimena emateko erabakigarriak direnean, bide juridikzional eskudunera jotzea alde batera utzi gabe.*
- 1.2.2 *Musika-aparailu, megafonia eta abarren bidez, 65 dezibelio baino gehiago sortzen dituzten gehiegizko zaratak egitea.*
- 1.2.3 *Txokoa erabiltzea araudi honetan ezartzen den ez bezalako helburu baterako.*
- 1.2.4 *Kanpoaldean su egitea, parrila, barbakoa eta abarren bidez, edo bero iturria den beste edozein objekturen bidez, eraikinerako eta instalaziorako arriskugarria izan daitekeena edo biztanleriarengan alarma sor dezakeena.*
- 1.2.5 *Mahaiak, aulkiak edo beste edozein material txokotik ateratzea, arrazoi justifikatu barik.*
- 1.2.6 *Zehapen-espeditentea ireki aurreko urtean zigortua izan izana arau-hauste arin batengatik.*
- 1.2.7 *Udalari txokoko giltzak ez itzultzea 48 orduko epean berau erabiltzen amaitutakoan.*

1.3 Arau-hauste arinak hauek dira:

- 1.3.1 *Araudi honetako 8 artikuluan jasotzen diren obligazioak ez betetzea.*
- 1.3.2 *Elikagaiak edo beste gauza batzuk sartzea norberak erabiltzeko eta txokoa erabiltzeko epea amaitzean ez ateratzea.*
- 1.3.3 *Txokoa eskuragarri dagoen hornidura edo instalazioetan kalteak sortzea beroriek erabiltzeko araudia ez erabiltzeagatik edo erabilpen desegokia egitea.*
- 1.3.4 *Araudi honetako edukiaren edozein arau-haustea edo Alkatetzak eman litzakeen jarraibideenak berau betearazteko.*

2. Aurreko ataletan jasotako arau-hausteez honako zehapen hauek izango dituzte:

- 2.1 *Arau-hauste oso larriak: 1.500 eta 3.000 euro bitarteko isunarekin zigortuko dira. Honez gain, bai eskatzaileak, bai erabiltzaileak ezin izango dira txokoa sartu bost urteko epean.*
- 2.2 *Arau-hauste larriak: 751 eta 1.500 euro bitarteko isunarekin zigortuko dira, eta egileak aurretik zigortuak izan badira arau-hauste oso larri edo handiago batengatik, bost urteko epean ezin izango dira txokoa sartu, ez eskatzailea, ez erabiltzaileak ere.*
- 2.3 *Arau-hauste arinak: 200 eta 750 euro bitarteko isunarekin zigortuko dira, eta egileak aurretik zigortuak izan badira arau-hauste larri edo handiago batengatik, urteko bateko epean ezin izango dira txokoa sartu, ez eskatzailea, ez erabiltzaileak ere.*

3. *Arau-hauste arinaren egilea aurretik zigortua izan bada arau-hauste larri edo oso larri batengatik, zigor gehigarri moduan arau-huste larrienerako ezarritako epean ezin izango da txokoan sartu. Era berean, aipatutako zigor gehigarria ezarriko da arau-hauste larriagatik zigor-espeditentzaz izapidetzen bada.*
4. *Arau-hausteak eduki xenofobo, arrazista edo sexistak baldin baditu, zigorra maila gorenean ezarriko da.*
5. *Edozein arau-hauste, agerikoa ez bada, faltatzat hartu ahal izango da eta ez arau-haustetzat.*

13. ARTIKULUA. ZIGOR-ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA

1. *Espedientea urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen eta garapeneko gainerako araudiaren arabera izapidetuko da.*
2. *Prozeduraren izapidegilea izendatuko da aurretik aipatutako araudiarekin bat etorritz. Zehapen-prozedurak ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da.*
3. *Araudi honetako edozein arau-hausteren erantzulea baimenaren eskatzailea izango da, alde batera utzi gabe araudi honetako arau-hausteen egileei dagozkien espeditentzaz irekiko zaizkiela, txokoaren erabiltzaile guztiek ezarritako zigorrari solidarioki erantzun behar dutelarik. Erabiltzailetzat joko da txokora joaten den edozein pertsona helburu diren jardueretarako eta udalak baimena eman duenetarako, egindako eskabidean oinarrituta.*
4. *Zigorrak erabiltzaileak araudi honetan jasotzen diren obligazioak eta betebeharrak ez betetzeagatik, modu isilean edo zehatzean, jarriko dira eta egoeraren balorazioa egin ondoren ebatziko dira.*
5. *Hiru ohartarazpen gertatutakoan ezin izango da erabilera eskatu urte bateko epean hirugarren urraketaren datatik zenbatzen hasita.*

14. ARTILUKUA. UDALAREN BETEBEHARRAK.

1. *Udalak txokoko mantentze-lanak egiteko betebeharra du, garbitasuna, ura, gasa eta argindarraren ordainketa, erabilezin bihurtu diren materialak berriz jartzea eta instalazioen erabilera normala egitearen ondorioz kaltetuak gertatzen diren instalazio guztien konponketa barne hartuta.*
2. *Baimenaren objektua den eskaera zehaztu ondoren, Udalak behar diren kudeaketak burutuko ditu txokoaren sarbidea errazteko edo bertara sartzeko giltzak emateko.*

II.- UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETAZ OSOKO BILKURAK EGITEN DUEN KONTROL ETA JARRAIPENA

4.- ALKATETZA PRESIDENTETZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK 2017.03.23TIK 2017.04.19RA HARTUTAKO ERABAKIAK:

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46.2e) artikulua, apirilaren 21eko 11/1.999 Legeak eta azaroaren 28ko 2586/1.986 Errege Dekretuak onartu zuen Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 42 artikulua ezarritakoaren arabera, Osoko Bilkuraren espedientean epigrafean aipatutako epean Alkatetzak emandako dekretuen kopiak daude, aztertuak izateko, ondoren dagokion lekuan artxibatuak izango direlarik.

Udalbatza jakitun gelditu da.

5.- PREMIAZKO MOZIOAK

Udal Araudi Organikoaren 41 artikulua aintzat hartuz, Alkate Udalburuak premiazko gaien artean EDEX ETA FATH-EN ALDEKO BI DIRULAGUNTZA IZENDUNEN ESLEIPENA ONARTZEA ETA 2017KO TRANSFERENTZIEIEN ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTEN ERANSKINEN ONDORIOZKO ALDAKETAK osoko bilkuraren gai-ordenean sartu zuen.

Dena den, Udal Araudi Organikoaren 41 artikulua 3. paragrafoaren literaltasuna aintzat hartuz, osoko bilkuraren aurretik egin den bileran Ogasun eta Ondare Informazio Batzordea eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako aldeko irizpena ikusi ondoren, premiaren berrespenaren betebeharra beteta dagoela ulertzen da eta ez da beharrezkoa premiazko izaera hori bozketara ezartzea.

EDEX ETA FATH-EN ALDEKO BI DIRULAGUNTZA IZENDUNEN ESLEIPENA ONARTZEA ETA 2017KO TRANSFERENTZIEIEN ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTEN ERANSKINEN ETA DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ONDORIOZKO ALDAKETAK:

Osoko Bilkurak onartzeko ezarri zen Ogasun eta Ondare Informazio Batzordea eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 22. zk. irizpena, 2017ko apirilaren 24ko bilkuran hartutakoa, zeinaren ziurtagiria espedientean jasota dagoen.

Osoko Bilkurak 2016ko abenduaren 22an 2017ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratua onartu egin zuen.

Aipatu aurrekontuak, derrigorrezko eranskin moduan, transferentziei eta dirulaguntza arruntei buruzko eranskin bat du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 6 artikulua ezarritakoa betez.

Osoko Bilkurak, 2017ko urtarrilaren 26ko saioan Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren txostena ikusita, non Udalaren aurrekontuan izendun dirulaguntza bi aurreikusteko eskatzen duen, 40.000,00 euro eta 31.000,00 euroko, hurrenez hurren, EDEX eta FATHrentzat eta dirulaguntza hauen helburua berariaz zehaztu behar dela dagokion lankidetzaz hitzarmenean.

Kontu hartzailetzaren txostenak transferentzia arrunten eranskinaren aldaketaren alde informatzen du, bertan beste izendun dirulaguntza bi sartzeko. Hauek dira:

- a) EDEXen aldeko dirulaguntza, 40.000,00 euroko zenbatekoa, 00600/23107/490.03.00 “Garapenerako lankidetzaz; Lankidetzaz Dominikar Errepublikarekin” aurrekontuaren aplikazioan kargatuko da.
- b) FATHren aldeko dirulaguntza, 31.000,00 eurokoa, 00600/23107/490.02.00 “Garapenerako lankidetzaz; Lankidetzaz Sahararekin” aurrekontuaren aplikazioan kargatuko da.

Aurreko guztia aintzat hartuta, bai eta Ogasun eta Ondare Informazio Batzordea eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren aldeko irizpena ere,

Leioako Udalaren Osoko Bilkurak, hemeretzi aldeko botorekin, Euzko Abertzaleak taldearen bederatzi zinegotzienak, ESNATU Leioa taldearen lau zinegotzienak, EH-Bildu taldearen hiru zinegotzienak eta Euskal Sozialistak taldearen hiru zinegotzienak, eta bi aurkako botorekin, Leioako Alderdi Popularrarenak, ordenamendu juridikoak, eta zehatz-mehatz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2 e) artikulua ematen dituen ahalmenak erabiliz, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenik.- EDEX eta FATHen alde bi dirulaguntza izendun berri esleitzea, 40.000,00 eta 31.000,00 eurokoak, hurrenez hurren.

Bigarrenik.- 2017ko aurrekontuaren transferentzia eta dirulaguntza arrunteei dagokien eranskina aldatzea, bi dirulaguntza izendun berri sartuz.

Hirugarrenik.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, bi dirulaguntza izendun berriak sartuz.

Laugarrenik.- Erabaki honi eta beharrezkoa den dokumentazioari dagokien publikitatea ematea.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eta gaueko bederatzia eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Presidentetzak amaitutzat eman du saioa, eta idazkari honi agindu dio dagokion akta idazteko, aipatu terminoetan onartua izan zena, eta nik, Idazkari Nagusiak, honen guztiaren gainean fede ematen dut.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA,